



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2017/12/19

Euskera eta Kulturako Sailaren aurrekontua milioi erdi gehiago ingurukoa izango da

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak Euskera eta Kulturako Sailaren 2018ko aurrekontuari aurkeztutako zuzenketa-eskeak eztabaidatu ditu gaur arratsaldean. Aurkeztu diran 92 zuzenketa-eskeetatik aldaketarako sei proposamen onetsi dira, eta aldaketa horreen ondorioz aurrekontua 479.000 euro gehiagokoa izango da.

Foru Gobernua eusten daben talde biek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak, Balmasedako La Encartada Museoan eta Bilboko Errekalde Aretoan eragina izango dauen zuzenketa-eskeak aurkeztu dabe. Lehenengo kasuan sorkuntza eta talentu artistikoa bultzatu gura dira, ehungintzaren eta modaren sektoreakaz lankidetzan eta, aldi berean, Enkarterriko herrira gerturatzeko komunikabideak hobetzea be aztertuko da. Errekalde aretoari jagokonez, ekimenak helburuak berbideratzea eta artista gazteen talentuaren kudeaketea indartzea bilatzen dau. Guztira, zuzenketa-eske horrek 250.000 eurotan handituko dau hasieran esleitutako kopurua.

Aurrekontuen gaineko eztabaidea hasi zanetik, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean lehenengo aldiz emon dira akordioak oposizinoagaz, bost zuzenketa-eske transakzionalen bitartez.

Talde Mistoak, Popularrak eta Podemos Bizkaiak gazteentzako udako jardueren, udalekuen, eta Bizkaia Goazen 2020 programaren gaineko zuzenketa-eskeak aurkeztu ditue. Holan, Foru Gobernua eusten daben talde biek, hasieran proponidu diran kopuruetara heldu barik, eskarien parte bat onesten daben hiru zuzenketa-eske transakzional bultzatu ditue. Horreen bitartez, horreetako bakotzak 33.000 euroko partidea jasoko dau, hasieran aurreikusitakoaz gain.

Beste alde batetik, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzordekidearen proposamen baten aurreko zuzenketa-eske transakzionala aurkeztu dabe. 200.000 euro eskatzen ziran Bilboko Arte Ederretako Museoko erakusketak diruz laguntzeko. Azkenean, partida horrek 100.000 euro gehiago izango ditu.

Bukatzeko, azkenengo zuzenketa-eske transakzionala, eskola kiroleko jardueretan parte hartzen daben irabazi asmorik bako erakundeentzako laguntzen gainekoa izan da. Aldecoak egin dauen hasierako 50.000 euroko eskaria 30.000 eurotan geratu da, aldean artean akordioa lortu ostean.

Horren guztiaren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera eta Kulturako Sailak, 45 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua aurkeztuko dau datorren abenduaren 28an Gernikako Batzarretxean egingo dan osokoa, hau da, Foru Aldundiko Gobernu egiturea osatzen daben zortzi sailek izango daben aurrekontuaren %3,8a. Horrez gain, esan behar da Euskera eta Kulturako Sailaren zenbatekoa 2017an baino %3 altuagoa dala.

Eztabaida amaitzean, oposizino talde guztiek Gernikako Osokorako erreserbau ditue euren zuzenketa-eske partzial guztiak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
19/12/17

El Departamento de Euskera y Cultura incrementa su previsión presupuestaria en cerca de medio millón de euros

La Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia ha debatido esta tarde las enmiendas presentadas al presupuesto del Departamento de Euskera y Cultura para el año 2018. Se han aprobado un total de seis propuestas de modificación de las 92 introducidas, que han supuesto un incremento de 479.000 euros.

Los grupos junteros que apoyan el Gobierno Foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, habían presentado una enmienda que afecta conjuntamente al Museo La Encartada de Balsameda y a la Sala Rekalde de Bilbao. En el primer caso se pretende impulsar la creación y el talento artístico en colaboración con los sectores textil y de la moda, al tiempo que se estudiará una mejora de las comunicaciones para acceder a la localidad encartada. En cuanto a la Sala Rekalde, la iniciativa pretender reorientar sus objetivos y potenciar la gestión del talento de artistas jóvenes. En conjunto la enmienda supone un incremento de 250.000 euros en la cantidad inicialmente asignada.

Por primera vez desde que se inició el debate presupuestario, la Comisión de Economía y Hacienda ha registrado acuerdos con la oposición en forma de cinco enmiendas transaccionales.

Los grupos junteros Mixto, Popular y Podemos Bizkaia habían presentado enmiendas referidas respectivamente a actividades estivales para la juventud, *udalekus*, y actividades relacionadas con el programa Bizkaia Goazen 2020. A este respecto, los grupos que apoyan al Gobierno Foral han impulsado tres enmiendas transaccionales que, sin llegar a las cantidades inicialmente propuestas, atienden en parte las solicitudes de la oposición, con partidas de 33.000 euros en cada una de estas áreas.

Por otro lado, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han transaccionado igualmente una propuesta del juntero del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, que solicitaba 200.000 euros para subvencionar exposiciones en el Museo de Bellas Artes de Bilbao. De este modo, la partida se ha visto incrementada en 100.000 euros.

Finalmente, la última transaccional se refiere a ayudas para entidades sin ánimo de lucro que participan en actividades de deporte escolar. La solicitud inicial de 50.000 euros por parte de Aldecoa se ha quedado en 30.000, tras el acuerdo entre ambas partes.

Como resultado de todo ello, el área de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia presentará ante el pleno de las Juntas Generales en Gernika el próximo 28 de diciembre un presupuesto que supera los 45 millones de euros, lo que supone un 3,8% del total para las ocho áreas en las que se estructura el Gobierno de la Diputación Foral. El montante de Euskera y Cultura supone, además, un incremento del 3% respecto al presentado en 2017.

Al finalizar el debate, todos los grupos junteros de la oposición han reservados todas sus enmiendas parciales para el pleno de Gernika.